

## **PRIBATUTASUN POLITIKA**

Zilegitasun, leialtasun eta gardentasun printzipioak aintzat hartuta, «KUTXABANK, Saren» Pribatutasun Politika hau zure esku jarri nahi dugu. Pribatutasuna eta datu pertsonalen babesari buruzko araudia zaintzeko konpromisoa daukagu, arreta berezia jarrita honako hauei: 1571999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, datu pertsonalen babesari buruzkoa (DPBL); 1720/2007 Errege-dekretua, abenduaren 21ekoa, 15/1999 Lege Organikoaren garapen-araudia (DPBLGA) onartzeko balio duena; eta etorkizunean horiek aldatzeko edo ordezkatzeko onartzen den edozein arau, batez ere 2016/679 (EU) Datuak Babesteko Araudi Orokor berria (DBAO).

### **Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?**

“KUTXABANK SA” (aurrerantzean, KUTXABANK) A95653077 IFK eta KALE NAGUSIA, 30, 48009 BILBO (BIZKAIA) helbidea daukana.

Datuak tratatzeko arduraduna denez, KUTXABANKek (tratamenduaren arduradunak) berak jasotzen dituen datuak eskuratzeko aukera emango dio CHEQUE MOTIVA SLri (Alcalá kalea, 106, Lehena, 28009 Madril helbidea daukanari), datuen tratamendua egiteko, betiere sustapen honekin loturiko zerbitzuak betetzeko eta tratamenduaren arduradun izaerarekin.

### **Zertarako erabiltzen ditugu zure datu pertsonalak?**

[www.zorionakzurikutxabank.es](http://www.zorionakzurikutxabank.es) guneko zure parte-hartzea kudeatzeko, onuradunentzako opariak eman ahal izateko eta hortik sortzen diren gorabeherak kudeatzeko erabiltzen du KUTXABANKek ematen diguzun informazioa.

### **Noiz arte gordeko ditugu zure datu pertsonalak?**

Sustapen honetako kudeaketa-lanak egin ahal izateko behar dugun denbora guztiak gordeko ditugu zure datuak.

Sustapena amaitu ondoren, datuak gorde egingo dira, haien tratamendutik sor daitezkeen erantzukizunei erantzuteko, haien preskripzio-epea amaitu arte.

### **Zein da zure datuak tratatzeko legitimazioa?**

Sustapenean parte-hartzearen ondorioz sortzen den kontratu-lotura betetzea da zure datu pertsonalak tratatzeko lege-oinarria.

Eskatzen dizkizugun datuak egokiak eta beharrezkoak diren horiek besterik ez dira, eta ez daukazu horiek emateko beharrik, sustapenean parte hartzea borondatezkoa delako. Hala ere, daturik emango ez bazenu, ezingo zenuke sustapenean parte hartu. Horrez gain, ematen dizkiguzun datu guztiak eskatutako xederako benetakoak, eguneratuak eta egokiak direla ziurtatzen diguzu.

### **Zein hartzaileri jakinaraziko zaizkio zure datuak?**

KUTXABANKek CHEQUE MOTIVA SLri besterik ez dizkio jakinaraziko zure datuak, KUTXABANKek kontratatutako zerbitzu jakin batzuk bete ditzan, hala nola sustapenaren garapena eta kudeaketa, tratamenduaren arduraduna izango den neurrian.

### **Zeintzuk dira zure eskubideak datuak helarazten dizkiguzunean?**

Interesdunek datuen babesarekin loturik dituzten eskubideak DBLOn jasotakoak -sartu, aldatu, ezeztatu edo aurka egin- eta DBAOn jasotakoak -sartu, aldatu, ezabatu, mugatu, aurka egin eta lekualdatu- dira:

- Datuetara sartzeko, aldatzeko (okerrak diren kasuetan) edo ezabatzeko eskaria egiteko eskubidea.
- Tratamendua mugatzeko eskaera egiteko eskubidea; kasu horretan, erreklamazioak abiarazi edo erreklamazioetatik babesteko besterik ez dira gordeko.
- Tratamenduaren aurka egiteko eskubidea. KUTXABANKEk zuk adierazitako moduan utziko dio datuak tratatzeari, salbuespen hauek tarteko: premiazko arrazoi legitimoengatik edo erreklamazioak egin edo horien aurrean babesteko behararengatik.
- Datuak lekualdatzeko eskubidea: zure datuak beste enpresa batek tratatzea nahi baduzu, datuak arduradun berriaren esku uzteko lekualdaketa egingo du KUTXABANKEk.

Lortutako datu pertsonalen titularrek, datu pertsonalak babesteko eskubideak erabili nahi badituzte, idatzi bat bidali beharko dute Kutxabanken helbide sozialera, edo horretarako prestatu den helbide elektronikora: [info@kutxabank.es](mailto:info@kutxabank.es). Kasu batean zein bestean, NANaren edo baliokidea den beste edozein agiriren fotokopia erantsi beharko dute. Eta Sustapenaren izena ere adierazi: «ZORIONAK ZURI KUTXABANK».

Aipatutako eskubideei buruzko eredu, formulario eta informazio gehiago: [www.agpd.es](http://www.agpd.es); [Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren webgune ofiziala](#).

### **Non jar dezaket erreklamazioa nire datuak behar bezala tratatzen ari ez direla uste badut?**

Onuradunen batek uste badu bere datu pertsonalak ez direla araudiak agindu bezala tratatu, Datuak Babesteko Ordezkariarekin harremanetan jar daiteke, helbide honetan: [dpo@grupokutxabank.com](mailto:dpo@grupokutxabank.com). Edonola ere, erreklamazio bat aurkez dezake Kontrolerako Agintaritzan, hain zuzen ere Datuak Babesteko Espainiako Agentzian, Jorge Juan kalea, 6., 28001, Madril

### **Datu pertsonalen segurtasuna eta eguneratzea**

Zure datu pertsonalen segurtasuna babesteko, KUTXABANKEk emandako datu pertsonalen segurtasuna ziurtatzeko beharrezkoak diren antolakuntza zein teknika arloko neurri guztiak hartu dituela jakinarazten dizugu. Datuak aldatzea, galtzea edo/eta baimenik gabe tratatzea edo eskuratzea eragozteko hartu dira neurriok, araudiak eskatu moduan, baina erabateko segurtasuna ez da existitzen.

Zure datu pertsonalak eguneratuta mantendu ahal izateko, oso garrantzitsua da, aldaketaren bat dagoen bakoitzean, guri jakinaraztea.

### **Konfidentzialtasuna**

KUTXABANKEk jakinarazten dizu gure langile guztiek zure datuak ardurarik handienarekin tratatuko dituztela emandako zerbitzuen fase guztietan. Hortaz, zure datuak ez dizkiogu hirugarrenei uzten edo jakinarazten, legeak aurreikusitako kasuetan izan ezik, edo onuradunak berariaz baimentzen duenean.